

Baliozko proposamena

Gure enpresaren helburu nagusia jendearen zorientasuna aurkitzea da aldaketa estetiko eta psikologikoen bidez: (estilo gehiago edukitzen erakutsiko genieke bezeroei, ohitura berriak erakutsiko genieke; dieta, ariketa fisiko desberdinak eta egoera bakoitzean nola makilatu eta orraztu esango genieke) Horretarako, enpresa osatzen dugun kide bakoitza arlo desberdinetan espezializatu gara.

- Psikologia, gai interesgarria iruditzen zaigu, bizitzan alderdi garrantzitsuenetariko bat delako norberak bere burua maitatzeko eta norberaren buruarekin ondo sentitzeko. Psikologiaren bidez, bezeroen barne nahiak errazago hautemango ditugu eta horrek benetan zer nahi duen eta zer behar duen argitzen lagunduko digu. Psikologiaren arloan, pertsonen beraien (akatsak) aurrera eramaten, beraien egoera landu, adibidez; familia arazoekin... Honen helburua bezeroa bere buruarekin ondo sentitzea izango da psikologikoki.
- Bestalde, INEF-en ezagutzak ere baliagarriak iruditzen zaizkigu, zu barrutik gustura sentitzeko kanpoko ere lagungarria izan ohi delako. Ikasketa honen bitartez, gorputzaren atal desberdinak nola landu jakiteaz gain, dieta desberdinak eta egokiak proposatzeko aukera izango dugu. Aldaketa fisikoaren arloan, INEF ikaskuntzak dituen kide bat arituko da. Honen helburua, bezeroaren egoera fisikoa hobetzea da, gimnasioko ariketen eta dieten bidez. Bezero bakoitzak dieta eta ariketa espezifiko batzuk izango ditu. Gure eskuzibitate eredu gisa, etxeko-erretxeko zerbitzua eskeinitzeko dugu, horrek bezero bakoitzak bere materiala eta beharrezko makinak eduki beharko dituen baldintzarekin. Zerbitzu hau, larunbat eta igandetan emango dugu. Azkenik esan behar dugu, etxeko zerbitzua pertsona horren behar espezifikoak zuzendua egongo da eta zentroetako zerbitzua zure antzeko beharrik dituzten 5-6 pertsonako taldeei zuzendua egongo da.

Arlo honetako helburu nagusia ez da pertsonen lipar horretako gorputz aldaketa bat egitea, beraien egoeraren larritasuna ikustea baizik etorkizunean gure laguntzarik gabe, beraien burua zaintzeko gai izan daitezen.

- Azkenik, kanpo itxurarekin jarraituz, moda eta estetikako ikastaro bat egin dugu. Honek, kanpoko itxura hobetzen lagunduko dugu. "Personal shopper" lanean ere diharduko dugu, hau da, beraien arropa erostera joango gara eta bere gorputzaren arabera zer dagokion ondo erakutsiko diogu. Astean bitan

gure zentroan hainbat ikastaro egingo ditugu, makilatzen ikasteko aurpegiaren formaren arabera, konbinatzen jakiteko aholkuak...Bezeroaren arabera, personal shopper egiteko orduan denda merkeagoetara edo garestiagoetara joango gara.